Zehazki, erronka honen helburua Bizkaia Immersion Trip-en eta ondorengo Demoday birtualean parte hartzeko 10 proiektu arte aukeratzea da, gero horietatik erronkako proiektu irabazlea eta finalistak hautatzeko, Ebaluatze-Batzordeak horrela erabakiko balu.

### 2. Bizkaia Open Future

**Bizkaia Open Future**\_ ekimena **Bizkaiko Foru Aldundiak eta telefónicak** (aurrerantzean “Antolakundea”) sustatzen dute Bizkaiko Lurralde Historikoko (aurrerantzean “Lurraldea”) industria sektoreari *Eraldaketa Digitalerantz* egin beharreko bilakaeran aldatzen laguntzeko. **Bizkaia Open Future**\_ industria arlo guztiari zuzenduta dago eta, halaber, bertoko eta nazioarteko ekintzailetza-talento berriaren eta Lurraldeko industria enpresen arteko lotunea izan nahi du.

**Bizkaia Open Future**\_k erreferentziako ekimena izatea lortu nahi du, Eraldaketa Digitalaren arloan proiektu teknologikoak sustatzeko, orientabide ireki eta nazioartekoa emanez. Bertan hainbat jarduera burutuko da startupek eta berrikuntza-talantuak beren ekimenak bultzatzen eta gara ditzaten Berrikuntza Irekiaren bidez, eta enpresa erreferenteek beren negozioak bilakatzeko eta hobetzeko ezagutza eta teknologia berriak eskura ditzaten.

**Bizkaia Open Future**\_ren jarduera digitalak [openfuture.org](http://openfuture.org) plataforma bidez burutuko dira, **Telefónica Open Future**\_k inbertsiogile, startup eta ekintzailetza-ekosistemako beste eragile batzuentzat daukan elkargune global eta birtualean.

Bizkaiko Foru Aldundiak **Bizkaia Open Future**\_ren zerbitzura jartzen ditu Bic Bizkaia Ezkerraldea-ko lantaldea eta instalazioak eta, gainera, sariak ematen ditu. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Cedemi, S.A.k gai hauek arautzen dituen akordioa sinatu dute.

Erronka hau **Bizkaia Open Future**\_ Berrikuntza Irekiko Programaren (aurrerantzean "programa") barruan kokatzen da. Bertan Lurraldeko enpresa erreferenteek negozio-erronkak plazaratzen dizkiote komunitateari, teknologian oinarritutako konponbideak bilatzeko, ekintzaile, startup, ETE, unibertsitate edo zentro teknologikoen implikazioarekin. Egiazko negozio-erronkak dira eta Eraldaketa Digitalaren arloko teknologietan oinarritutako konponbide berritzaleak nahi dituzte.

### **3. Enpresa erreferentea: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa**

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa** erakunde publiko bat da eta oinarrizko sarea kudeatzeaz arduratzen da. Gutxi gorabehera Bizkaiko milioi bat lagunen edateko ura hornitzen du eta euren hondar-urak garbitzen ditu.

81 udalerrik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta eusko Jaurlaritzak osatzen dute.

Haren helburua gizarteari zerbitzu bat ematea da, komunitatearen ongizatean ekarpena eginez, eta horretarako berrikuntza eta kalitatea bere jardueran zeharkakoak dira, ingurumena errespetatu eta zaintzearekin batera.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak 26 potabilizatze-gune, 32 araztegi eta 4000 km baino gehiagoko sarea kudeatzen ditu eta 350 langile dauzka.

### **4. Berrikuntza-Eskaera Irekia**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak plazaratu duen Berrikuntza-Eskaera Irekiaren (aurrerantzean "Berrikuntza-Eskaera Irekia" edo "BEI") izenburua "**NOLA ERRAZ DEZAKETE TEKNOLOGIA BERRIEK UR PARTZUERGOAREN INSTALAZIOAK KONTROLATZEKO GAILUEN KUDEAKETA ETA MANTENTZEA?**" da eta jarraian azaltzen den beharrizanari dagokio.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa kudeaketaren arduraduna da oinarrizko sarean, bai edateko urarena eta bai gutxi gora behera Bizkaiko milioi bat biztanleren hondar-urena ere. Bere estatutuetan jasota dituen zenbait eskumen espezifiko burutzen ditu eta horien artean

daude oinarrizko sarean ura hornitzea, industria isurien kontrola eta hornidura ematen zaien bezeroekiko harremanak.



2. irudia. Uraren zikloa

Bere jarduerak burutu ahal izateko Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontrol eta ekite-gailuak dauzka kokapen guztietan instalaturik. Gailuok sistema baten barruan daude eta ezarrita dauden instalazioen jokaera monitorizatzeaz eta erregulatzeaz arduratzen da, huts egiteko aukerak murrizteko. Gailuon adibide bat dira PLCak, sentsore edo neurte-tresnak, uhateak ireki eta ixteko tresneria, ura kontrolatzeko gailuak edo motorrak kontrolatzeko ekipamendua, besteak beste.

Kontrolerako gailu guztiok kontrol-gunearekin komunikatzen dira SCADAn oinarritura (Supervisory Control And Data Acquisition – Datuen Gain-ikuspen, Kontrol eta eskuraketa. Programa honek aukera ematen du prozesuak urrunetik kontrolatzeko, gailuen informazioa jasoz.

Gaur egun Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren instalazioetan hainbat fabrikatzailerentresneria dago aldi berean. Fabrikatzale bakoitzak bere aktiboak egituratzeko eta eskuratzeko inguru eta era desberdina du. Mantentze-eragiketen idiosinkrasia hau dela-eta, mantentze-prozesua kostu handikoa da langileen denbora eta prestakuntzari dagokienez. Gainera, gailu-aukera urtetik urtera hazten da eta fabrikatzale berriak eta beren tresnak kudeatzeko era berriak agertzen dira.

Hori ikusirik, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan instalatutako azpiegiturara egokitza ahalbidetuko dion teknologia eduki beharra sortu da. Halaber, bizkortasun eta malgutasun handiagoa behar du etorkizunean sarean egin daitezkeen zabaltzeak bateratzeko, bere instalazioak mantendu eta kontrolatu ahal izateko.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak plazaratu duen eskaeraren **helburua** proposamen teknologiko bat aurkitzea da, mantentzea teknologiatik eta dagokion fabrikatzailearengandik at dagoen prozesua izan dadin. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak konponbide eskalagarria lortu nahi du gailu guztiak era berean mantendu eta kontrolatu ahal izateko, inguru bateratu batean eta edozein gailuren bitartez, era arin eta erraz batean.

Berrikuntza-Eskaera Ireki honetan parte hartu ahalko du edozein ekintzaile, startup, ETE, unibertsitate edo zentro teknologikok, baldin eta konponbideren bat badaukate, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak **zatika nahiz osorik** hurrengo helburu zehatzak bete ahal ditzan:

- Era erraz eta bizkor batean mantentzea eta kontrolatzea (sarbide, programatze edota konfiguratzea egiteko gaitasunarekin) Ur Partzuergoaren sareko instalazioen elementu elektronikoak.
- Konponbidea lortzea inguru bateratua edukitzeko elementu guztieta gehitzeko, user-friendly eta gailu anitzekoa.
- Sistemaren eskalagarritasuna erraztea, gailu edo fabrikatzaile berriak eransteeko aukera eskainiz eta izan daitekeen integrazioan garapen konplexuak gutxituz.
- Konponbidea Ur Partzuergoaren beste sistema batzuekin txertatzeko aukera ematea.
- Proposatutako konponbideak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatzen dituen segurtasun-irizpideak betetzen dituela bermatzea.
- Azaldutako funtzionaltasunei beste batzuk eranstea Partzuergoaren prozesuak hobetzeko, aurreko puntuai berrikuntza-maila bat emanet.

Azken puntuari dagokionez Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak, bere barruko prozesuetan berrikuntzarekin konprometiturik dagoen erakunde bezala, eta bere sistemei teknologia berriak eransteak duen garrantzia jakitun egonik, aintzat hartuko ditu bere kudeaketa-sistemei balio bereizgarria emango dioten konponbideak. Esate baterako, funtzionaltasunen artean aipa daitezke aktiboen geo-kokapena, mantentze prediktiboak egitea edo informazioa eraginkortasunez antolatzea erabakiak datuetan oinarrituta hartzeko.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak azaldutako beharrizanari erantzuna emateko proposatutako konponbideen **onurek** haren negozio-alderdi esanguratsuak hobetu litzakete, esate baterako:

- Funtzionaltasunaren disponibilitatea hobetzea.
- Gailu elektronikoetan akats-kopurua gutxitzea eta eraginkortasun handiagoarekin jokatzea akatsa ohartzeko denbora murrizteagatik.
- Mantentze-operatiban kostuak eta denborak murriztea, erakundearen eraginkortasuna handituz.
- Langilearen gogo-betetzea hobetza, tresna eraginkorragoak eta errazagoak erabiltzeagatik.
- Datu historikoetan oinarrituta erabakiak zuzenago hartzeko gaitasuna izatea.

Adibide gisa Erronka hori konpontzen lagun lezaketen Eraldaketa Digitalaren barruko zenbait teknologia aurkezten dira, nahiz eta ez diren beste batzuk baztertzen:

- Gauzen internet (IoT)
- Machine to Machine (M2M)
- Machine learning
- Deep Learning
- Adimen artifiziala
- Big data
- Kokatze-sistemak

## 5. Ebaluatzeko irizpideak

Deialdi honetan agertzen diren arazoak **zatika nahiz osorik** konpontzen lagunduko duten konponbideak bilatzen dira, batez ere lehen aipatutako teknologia berrietan oinarritura: gauzen Internet (IoT), errealitate birtuala, handitua edo mistoa, interfaze haptikoak, gauzen Internet (IoT), Machine learning, mantentze prediktibo edo proaktiboa, koatze-sistemak, user experience UI desingari aplikatua, etab.

Zehazki, proposamen bakoitzaren hurrengo gaiak balioztatuko dira soilik parte-hartzaileek beren hautagaitzan erantsi duten informazioan oinarritura:

- **Proposatutako konponbidea:** kontuan hartuko da arazoa konpontzeko gradua, arazoa orokorki, zatika edo haren funtsa konpontzen den balioztatuz.

- **Bideragarritasuna:** proposatutako konponbidearen eraginkortasuna eta gauzatzeko erraztasuna.
- **Berrikuntza:** Proposatutako konponbidearen berrikuntza-maila.
- **Erabilitako teknologiak:** konponbidearen maila teknologikoa Eraldaketa digitalaren eremuaren barruan.
- **Zenbatespen ekonomikoa:** hurbiltze ekonomikoa aurkeztutako proiektuari buruz.
- **Talde sustatzailea:** talde sustatzailea eta erronkari erantzuna emateko gaitasuna.
- **Denbora:** konponbidea ezartzeko denbora.

## 6. Hautagaitzen aurkezpena

Erronkan parte hartu nahi duten ekintzaile, startup, ETE, unibertsitate edo zentro teknologikoek, beren hautagaitza aurkeztu beharko dute ezarritako mekanismo elektronikoak erabiliz, hurrengo helbideetan:

<http://bizkaia.openfuture.org> eta <http://www.openfuture.org>

Dagokion parte-hartze formularioa bete beharko dute, izen-ematearekin batera eskatzen zaion edo interesgarritzat jotzen duen informazio guztia erantsiz.

Hautagaitzak aurkeztekoko epea **2019ko irailaren 16an** hasiko da, 09:00etan (GMT +1) eta **2019ko urriaren 16an** amaituko da, 18:00etan (GMT+1).

Hala ere, Antolakundeak noiznahi eta bere erabaki hutsarekin, eskabideak aurkeztekoko epearen iraupena eten, zabaldu edota aldatzeko eskubidea izango du. Horrela gertatuz gero, era egokian jakinaraziko du.

Hautagaitzak aurkeztekoko prozesu honetan eskatzaileek beren zalantzak hurrengo posta elektronikora bideratu ahalko dituzte: [bizkaiaopenfuture@telefonica.com](mailto:bizkaiaopenfuture@telefonica.com)

## 7. Parte hartzeko betebeharrak

Erronkan parte hartu ahalko du Bilbao Bizkaia Ur partzuergoa enpresa erreferenteak ezarritako erronka zatika nahiz osorik konpontzen lagun dezakeen proposamena daukan edozein ekintzaile, startup, ETE, unibertsitate edo zentro teknologikok.

Aurkeztutako proposamenaren talde sustatzaileko kideek edota pertsona fisikoa den ordezkarriak adinez nagusiak izan behar dute, eta erantzunbeharrok hartzeko legezko gaitasuna eduki behar dute.

Hasieratik edo geroago baldintza hauetakoren bat betetzen ez duten parte-hartzaileak erronkatik kanporatu ahalko ditu Antolakundeak eta ezein zerbitzu jasotzeko aukera guztiak galduko dituzte, deialdi honen antolatzailleei ezer erreklamatzeko eskubiderik izan gabe.

Berrikuntza-Eskaera Ireak erregistratzean parte-hartzaileek ematen dituzten datuak egiazkoak izango dira eta, horrenbestez, erronkan parte hartzeko eta ezein zerbitzu hartzeko aukera guztiak galduko dituzte datu faltsu, oker edo osatu gabeak ematen dituzten parte-hartzaileek, jokabide horren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Parte-hartzaileak bere gain hartuko ditu erantzukizun horiek, deialdi honen antolatzaillek inolako kalterik gabe utziz.

Berrikuntza-Eskaera Ireak honetan izena ematean parte-hartzaileak osorik eta erreserba edo baldintzarik gabe onartzen ditu oinarri hauetan agertzen diren terminoak.

Antolakundeak eskubidea izango du parte-hartzaileak ez onartzeko edo Berrikuntza-Eskaera Irekitik baztertzeko, aurretiaz jakinarazi gabe, beren ustez iruzurrez, gehiegikeriaz edo programako izpiritua, Legearen, hirugarrenen eskubideen edota fede onaren kontra jokatzen badute, beti ere jokabide horren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Parte-hartzaileak bere gain hartuko ditu erantzukizun horiek, deialdi honen antolatzaillek inolako kalterik gabe utziz. Nolanahi den ere, edozein parte-hartzaile baztertu ahalko dute haren jokabidea (edo harekin zerikusia dutenena) antolatzailleen eta **Bizkaia Open Future** programaren ospearen kontrakoa bada. Halaber, eskubidea izango dute edozein parte-hartzaile ez onartzeko beren ustez ez badiete erantzun egokirik ematen ezarritako Berrikuntza-Eskaera Ireaki edota onartutako proiektu kopuruari, nahiz beste edozein arrazoirengatik.

Proiektua aztertu eta ebaluatzea, parte-hartzaileek baimena ematen diote Antolakundeari Ebaluatze-Batzordeko kideei deialdi honen parte hartzearen ondorioz parte-hartzaileak emandako ideiak, dokumentazioa eta informazioa emateko.

## 8. Deialdiaren faseak

Hautagaitzak aurkezteko epea amaitutakoan, **Bizkaia Open Future\_** eta **Bilbao Bizkaia ur Partzuergoko** ordezkariek osatutako Ebaluatze-Batzordeak banakako elkarritzetak egin ahalko ditu, online edo telefono bidez, aurkeztutako proiektuei dagokienez informazio gehiago izateko.

Helburua gehienez (10) proiektu aukeratzea da (aurrerantzean “Aukeratutako Proiektuak”), Proiektu Irabazlea erabakitzeko aukeratze-prozesuan parte har dezaten, jarraian azaltzen diren faseen arabera. Horien datak Deialdi honetako “Aukeratze prozesuko datak” atalean agertzen dira.

Aukeratutako proiektuek Berrikuntza-Eskaera Irekia erabakitzeko prozesua osatzen duten hurrengo faseetan parte hartuko dute:

### I. fasea: Bizkaia Immersion Trip

Aukeratzen diren proiektuek Bizkaia Immersion Tripen parte hartuko dute, Bizkaian (Euskal Autonomia Erkidegoa) egingo den 3 eguneko bidaian. Data “Aukeratze-prozesuaren datak” atalean agertzen dena izango da eta parte-hartzaleek eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa Enpresa Erreferenteak beren ezaguerak partekatu ahalko dituzte eta elkar-sorkuntza eta *networkinga* bultzatu.

Bidaia honetan Aukeratutako Proiektuek hurrengo jarduerak egingo dituzte

4. Bertatik bertara harremanak izatea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa Enpresa Erreferentearekin. Haren instalazioak ikusi ahalko dituzte, enpresa ezagutu eta Erronkaren helburu diren arazoak zein diren jakin dezaten.
5. Lekuan lekuko saioak, banakako bileretan Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko profesionalekin lan egiteko aukera izan dezaten, bertatik bertara abiapuntuko proposamena azal dezaten eta hasieran definitu dituzten konponbideetan egin litzkeen hobekuntzak identifikatzeko.
6. Beren proposamena azaltzea, Bizkaia Immersion Tripean lortutako informazioarekin aberastuta, balorazioa jaso ahal izateko eta horrela, Demodayan azken aurkezpena egiteari begira, Erronkari gehien egokitzen zaion konponbidea landu ahal izateko.

Aukeratutako proietkuek Bizkaia Immersion Trip-en parte hartzeari dagokion kostua (bidaia, ostatua eta antolatutako jarduerak) Bizkaiko Foru Aldundiak ordainduko du. Dena dela, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia Immersion Tripera soilik parte hartzen duen proiektu bakoitzeko pertsona bati dagokion kostua estaliko du.

Bizkaia Immersion Trip egin ondoren Aukeratutako Proietkuek denbora gehigarria izango dute beren konponbideak bilakarazteko eta berriro bidaltzeko. Bilakatutako konponbidea Demodey birtual batean defendatuko da.

### **Fase II: Demodaya eta Proiektu Irabazlea**

Aukeratutako Proietkuek aukera izango dute beren proposamen bilakatua azaltzeko, *pitch formatuan eta era birtualean*, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa Enpresa Erreferentearekin batera Bizkaia Immersion Trieko saioetan lortu duten ezagueran oinarrituta.

Demodayaren ostean Ebaluatze-Batzordeak Proiektu Irabazlea aukeratuko du azalpenean eta ezarritako irizpideen ebaluaketan oinarrituta. Proiektu Irabazoleak Deialdi honetako "Onurak eta Diru-laguntzak" atalean deskribatzen diren onurak jasoko ditu.

Ebaluatze-Batzordeak Proiektu Irabazlea ez aukeratzeko eskubidea izango du ezarritako Erronka eraginkortasunez betetzen duen proposamenik aurkituko ez balitz.

### **9. Aukeratze-prozesuaren datak**

Bizkaia Immersion Trip-en parte hartzeko aukeratuta gelditzen diren proietkuei horren berri emango zaie posta elektronikoz **2019ko urriaren 30ean**.

Bizkaia Immersion Trip egin ondoren (**2019ko azaroaren 13, 14 eta 15ean** dago aurreikusita) aukeratutako proietkuek beste aste bat izango dituzte beren konponbideak garatzeko eta berriro bidaltzeko. Konponbidea Demoday birtual batean defendatuko da **2019ko azaroaren 22an**.

Ebaluatze-Batzordeak Proiektu Irabazlea zein den (egonez gero) posta elektronikoz jakinaraziko du **2019ko abenduaren 12an**.

Antolakundeak eskubidea izango dute lehenago adierazitako edozein data eten, zabaldu edota aldatzeko, edozein unetan eta soilik beraiek erabakita, beharrezkoa izanez gero.

## 10. Onurak eta diru-laguntzak

Berrikuntza-Eskaera Irekia irabazten duen proiektuak hurrengo onurak jasoko ditu:

- Bere konponbidearen egiazko pilotu bat egitea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa Enpresa erreferentean, enpresa horrek ordainduta, beti ere proposamenek ebaluatze-irizpideak betetzen badituzte.
- Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen 15.000 €-ko saria.
- Bizkaiko Foru Aldundiak ekintzaile, startup eta ETEntzat kudeatzen dituen zerbitzuak eskuratzeko laguntza. BEAZ S.A.U. foru enpresak, Bizkaiko ekintzailetza eta berrikuntza ekosistemako eragileak, laguntza-prozesu hau burutuko du.
- Bizkaiko Foru Aldundiak enpresa berritzairen sorkuntza, berrikuntza, inbertsioa eta nazioartekotzea bultzatzeko dituen diru-laguntzetara eskaerak aurkezteko laguntza. Diru-laguntzok eskatu ahal izateko Proiektu Irabazoleko pertsona edo erakundeak bere helbide soziala eta lantoki bat Bizkaian eduki behar ditu, Deialdiko baldintzak bete behar ditu eta subentzionagarriak diren gastuak izan.

Proietua Irabazole bezala aukeratua ahal izateko erakundeak legez eratuta egon behar du eta adinez nagusiak direnek osatua; ez du deuseztatzeko lege auzibidetan sartuta egon behar. Bizkaitik kanpoko enpresa bada, Irabazi duen Proietua Bizkaian burutzeko konpromisoa hartu beharko du. Horretarako, proietua burutzen ari den bitartean, erakundeak aukera izango du BIC Bizkaia Ezkerraldeako (edo BEAZek kudeatzen dituen beste inkubazio-gune batzuetako) inkubazio-instalazioak erabiltzeko eta bertako lantaldearen laguntza izateko. Proietua Irabazi duten Bizkaitik kanpoko erakundeei dagokienez, gutxieneko egonaldia Lurraldean urtebetekoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen 15.000 €ko diru-laguntza jaso ahal izateko.

## 11. Datu pertsonalen babesia

Deialdi honetan parte hartzean zure datuen tratamenduaz arduratzen den enpresa Telefónica S.A. da, IFK: A28015865, ondorio hauetarako helbidea hemen duena: Oeste 1, 6. solairua, Ronda de la Comunicación ZG - 28050 Madril.

Zuri buruz daukagun informazioa Deialdi honetan izena emateko formularioan eman dituzun datuak dira. Zure datuak batez ere Deialdian zure inskripzioa bideratzeko erabiliko ditugu. Hala ere, legezko beste helburu batzuetarako ere erabiliko dugu: deialdiaren prozesuari dagokionez zurekin komunikatzeko, Telefónica Open Futuren dituzun lehentasunak ezagutzeko, egingo diren ekitaldien berri emateko edo aplikatzen zaizkigun legezko beharkizunak betetzeko.

Datuak babesteko eskubide guztiak gauzatu ahal dituzu Telefónica S.A.-ren aurrean. Zure eskubideen norainokoa eta zehaztasun guztiak ikus ditzakezu Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren web-orrialdean (AEPD) eta bertan erreklamazioa egin dezakezu egokiro jokatu ez dugula uste baduzu. Gure datutegietan baja eman nahi baduzu automatikoki egingo dugu eskabidea jaso eta gero. Oro har, zure eskubide guztiak gauzatu ahalko dituzu (edonoiz eta dohainik) Telefónica S.A.-ren zerbitzu honen pribatutasun-lantdeari idatziz: [privacidad@openfuture.org](mailto:privacidad@openfuture.org). Bertan zeure eskubideak gauzatu ditzazun egin beharrekoak azalduko dizkizute.

Halaber, Telefónica S.A.-tik Telefónica Open Future zerbitzuengatik edozein bidetatik merkataritza jakinarazpenak jasotzea ukatzeko eskubidea gauzatu ahalko duzu lehen aipatutako helbidera e-mezua bidaliz.

Telefónica S.A.-z gain, antolatzailea den Bizkaiko Foro Aldundiak, zure datu pertsonalak eskura ditzake Deialdi honetan zure izen-estatea kudeatzeko, haren prozesuari buruzko jakinarazpenak egiteko eta Deialdiaren helburuaren barruan zurekin sor daitezkeen harremanak bideratzeko, soilik horretarako beharrezkoa den denboraldian. Kontuan har ezazu tratamendu hau beharrezko dela oinarriotan agertzen den kontratu-harremana burutzeko. Antolatzailea Europar Batasunetik kanpo badago beharrezko bermeak lortuko ditugu egiten duen tratamendua europar legediarekin bat etor dadin, horretarako EBko Klausula estandarrak sinatuz.

Datuak babesteko eskubide guztiak gauzatu ahalko dituzu Antolatzailearen aurrean (edonoiz eta dohainik) Antolatzailearen pribatutasun-lantdeari hona idatziz: [dpo@bizkaia.eus](mailto:dpo@bizkaia.eus). Han zeure eskubideak gauzatu ditzazun zer egin behar den adieraziko dizute. Antolatzailearen Datuen Babeserako Ordezkarriaren kontaktua hau da: [dpo@bizkaia.eus](mailto:dpo@bizkaia.eus).

## **12. Azken konsiderazioak**

Antolakundeak Berrikuntza-Eskaera Ireki hau aldatu, eten, desaktibatu edota bertan behera utzi ahalko du edozein arrazoirengatik. Horrela gertatuz gero Parte-hartzaileei jakinaraziko die, horrek inolaz ere erreklamazioa egiteko edo kalte-ordinak jasotzeko eskubiderik sortu gabe.

Antolakundeak eskubidea izango du onura guztiak edo baten bat eman gabe uzteko, baldin eta Ebaluatze-Batzordearen iritziz aurkeztutako ezein proiektuk Irabazlea izatea merezi ez badu. Era berean, Antolakundeak eskubidea izango du Hautatutako Enpresak baztertzeko bere iritzi soilaren arabera Deialdian parte hartzeko baldintzak betetzen ez badituzte.

Parte-hartzaileek, Berrikuntza-Eskaera Ireki honetan parte hartzeagatik, onartu egiten dute Deialdiaren antolatzaileek beraien izena eta parte hartzen duen startup, ETE, unibertsitate eta zentro teknologikoarena, eta dagozkien irudi edota logoak erabil ditzaketela, edozein bidetatik eta soilik korporazio, publizitate eta sustapen helburuetarako, edota irabazi duen proiektua gainerako parte-hartzaileei eta jende orori ezagutarazteko, lurralte eta denborari dagokienez inolako mugarik gabe eta haien alde inolako ordainketarik sortu gabe.

Berrikuntza-Eskaera Irekia irabazi duen Proiektuak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin konponbidearen egiazko pilotu bat egiteko alderdi biok lotzeko kontratu bat sinatu beharko da eta bertan, besteak beste, lan egiteko eremua eta egin beharreko pilotuaren baldintzak ezarriko dira, eta baita pilotua burutzearen ondorioz sor daitezkeen jabetza industrial/intelektualen erabiltzeko baldintzak ere.

Hala ere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak erabat ezartzeari uko egin ahalko dio pilotua (edo haren faseren bat) garatzerakoan agerian geldituko balitz aukeratutako konponbideak ez dituela eskaintzen Berrikuntza-Eskaera Irekian eskatutako emaitzak edo Bilbao Bizkaia ur partzuergoaren beharrizanei ez diela erantzuten.

Oinarri hauetan agertzen diren termino eta baldintzek ez dute inolako betebehar edo kontratuzko loturarik sortzen Antolakundearentzat eta parte-hartzaileentzat, espresuki aurrekitusitakoaz gain.